

## AURKEZPENEA

*Ezintasuna eta etsipena sentituaz bada ere, duela urte askotatik hona ikusi izan dut alkoholismoak nola egiten duen gorantz ziztu bizian. Egitate hori gaitzetsiaz idatziak ditut artikulu batzuk, eta salbuespenak aparte, ezikusia egin zaie, non eta ez diren hartu haserrez eta etsaitasunez, hain justu ere edateko bizioa gehien gaitzetsi eta borrokatu behar zutenen aldetik, hau da, euren esanetan, behintzat, eraketa soziala zeharo transformatzearen alde agertzen direnen aldetik.*

*Eta horrek zera ulertarazi dit: progresistak eta ezkertiarrek ez dira alkoholismoaren aurka, zeren ez dira iraultzaren aldekoak, ezta gizatasunaren izate konkretuaren aldekoak, ezta bizimodu moral eta zibilizatua altxatzearen aldekoak. Horien egungo politika narrasa da: indarrean den eraketari eustea, zenbat eta gehiago perfekzionatuz; hartarako, drogen eta edabearen kontsumo gehiegizkoa era askotan -zeharka zein artezean- sustatuaz.*

*Garbiro esanda, joera politiko horiek eta frankismoa dira alkoholizatzearen eta drogazaletasunaren zio nagusiak. Hiru horiek mozkortien herri bihurtu gaituzte, 1965-85eko tartean, eta geroztik etorri dena ordukoaren bilakaera baino ez da.*

*Jarraian doan testuan, bazter uzten dira sinplifikazioak, eta arazoa bere konplexutasun esker gan lantzen da, men egin gabe baikortasun lañoiei, nahiz eta horretarako joera izan "erradikalismo"etariko batek, uste baitu gaitz guztiek dutela konponbidea, hain justu ere sinesten dutelako ezen historia bururatzen denean han izango dugula amaiera zoriontsu eta distiratsua. Baina, egungo gizartearen desintegrazioa, abian baita, besteak beste, alkoholaren eta drogen -legezkoen zein legez kanpokoan- ondorioa da. Legezkoen artean dira psikofarmakoak, zeintzuekin osasungintza publikoak ok egin arte betetzen dituen bezero dohakabeak, bereziki andrazkoak. Eta baliteke desintegrazio horrek jada ez izatea konponbiderik; beraz, arazo honetaz ikuspuntu errealista bakarrak amaigabeko borrokarantz, etengabeko ahaleginerantz eta muga bako dedikaziorantz begira jartzen gaitu.*

*Egia betiere korapilatsua ez eze, gogorra eta lazgarria ere bada, eta hainbat eragile jorratu behar ditu, bazter utziaz monismoa eta sinplekeria. Hortaz, badira toxikomanien kausa politikoak, sozialak eta existentzialak, eta bai gizaki legez bere burua altxatzen dabilela norbanakoari eragiten diotenak ere. Eta osotasun baten elkarri eragiten dioten osagai gisa tratatzeko, iraultza politikoa beharrezkoa eta ezinbestekoa da, baina ez da aski eta gainera mugatua da; hortaz, konplexutasun-gradu handiarekin pentsatzera behartuak gara, gutarik egotziaz baikortasunaren kontsolamendua, oro har narkotiko espiritual bat besterik ez baita.*

*Bukatzeko, nire esker ona agertu nahi diet Straight Edge mugimenduko lagunei, nire ekarpen txikiak ulertu dituztelako, eta aukera eman didatelako nire ideiak eta emozioak azaltzeko, eta, orobat, aspalditik partekatu nahi nituen bizipen txiki batzuk.*

## ATARIKOA

"Gorputzeko gorabeheretz lar arduratzea arima txikiaren seinale da, zein da janean eta edanean paramenik ez izatea .....eta gorputzaren gainontzeko funtzioetan behar baino denbora gehiago ematea. Guzti hori azkar eta bide batez egin behar da. Espirituari eskaini behar zaizkio gure arta guztiak."

### Epitekto, erromatar filosofoa

*Egungo eraketa politiko-juridikoa ez da libre, eta gainera: hedabideekin doktrinatzan du eta hezkuntzaz leziazten, derrigorrezko disbalioak ditu, hedonista eta zorionkeriazkoa da, eta ahaleginari, sufrimenduari eta minari zaien izu induzituan bermatzen da; bestalde, gizartekotasun-eza ezartzen du eta harrapaketa ekonomikoa bultzatzen. Kausa guzti horien ondorioz, alkoholismoa hedatu egin da oso, historiako beste aldi gutxitan ezagutu den heineraino; bada zalantza bat: Erromaren gainbeheraldian, jendetzen artean ba ote zen egungoa baino mozkorreria handiagorik? Instituzioek, progresismoak eta ezkertiaratasunak sustatua da masen alkoholismoaren fenomeno, eta argiro erakusten du egungo askatasun falta (kontzientziakoa, politikoa eta zibila), zeren alkoholean bertan juntatzen dira ondokoen kasuak eta ondorioak: modernitate zahartuko jendeek jasan behar dituzten zapalketa eta manipulazio mentala, hau da, gaur egun, diktadura politiko, konstituzional, partitokratiko eta parlamentaristako erregimenak ezarritakoak.*

*Egoera horretan, egun jasan behar ditugun zurruteroek eragin kalapita zakar eta gero eta handiagoek askatasunari erasotzen diote, gizatasunaren izaite konkretua suntsitzen dute lazki, eta, bestalde, bide ematen dute bizitza on eta zibilizatua beste batez ordezteko, hau da, desintegratua eta basakeriazkoa den beste batez.*

*Alkoholizatze orokorraren apostoluek darabiltzaten hitzezko trikimailuetako bat hau da: beti edan izan da gehiegi; hortaz, gure sasoi ez da beste batzuk baino txarragoa. Hori zeharo faltsua da, geroago esango dugunez; izan ere, frankismora arte, Espainiako Erreinuren lurraldeetan, hordikeriak gutxi batzuei eragiten zien, eta ia ez zeukan garrantzi sozial, politiko edo moralik. Frankoren erregimen faszistak sustatu zuen, lehenik, tabernarako jaiera, eta gero bar-erakoa, diskoterakoa eta ergeldu egiten duten beste aisialdi-era batzuetarako; guztiak ere, horditasunari lotuak, eta bai bizimodu nasaikeriazko, hutsal, arduragabeko, zarpail eta morroikeriazkoari ere.*

*Ez ziren hobeak izan diktadura konstituzional eta parlamentarioko erregimenaren (1977-78ko tartean ezarria eta sistemaren publizistek "demokrazia" deritzotena) jokabidea eta ekinbidea; izan ere, gu guztiok dipsomaniako bihurtzen setatu baitzen, eta esan liteke 1965-85eko tartean eratu zela masen egungo alkoholismoa, zeina lehenago ez baitzen gutartean. Beste era baten adierazita, frankismoak hasitako eginkizuna parlamentarismoak bururatu zuen, arrakasta handiz hain justu ere, geure kalterako ordea. Guzti horretan eta bai drogak sustatzen ere, zeregin behinenetarikoa Enrique Tierno Galván-ek bete zuen; izan ere, aipatu hamarkadako urte batzuetan, PSOEren aldetik Madrileko alkate izan zen, pedigriko intelektual ezkertiarra berea, hedabide estatalek eta kapitalistek zorameneraino goratua.*

*Euskal Herrian, Ezker Abertzaleak bazituen kontsigna zuztarbako batzuk; batez ere, "martxa eta borroka" eta bizimodu "alai eta ekintzailea" eskatzen zituztenak; horiek, iragan mendeko 80ko urteetako testuinguruan,*

edateko bizioa neurri onartezinetaraino eramaten lagundu zuten, era askotako ondorio larriekin, politikoak ere bai. Azken horiek: lurralde horretan Estatu espainiarra sendotzearen oso aldekoak, eta ordutik harako jazoerek horixe erakutsi dute; izan ere, presentzia eta eraginaren aldetik asko eta asko ahuldu baita aipatu ezkerria.

Kontrakulturak (zeinaren jaiotza 60ko urteetan eta 68ko maiatz frantziarrean kokatu ohi baita) nazioarte mailan jainko berri bihurtu zituen drogak, baita alimaleko neurritan edandako garagardoa ere, pentsatuz eze horiek askatuko zutela Gizateria hainbat eta hainbat gaitz eta morrontzatatik. Guzti horretatik jalgi zen LSDa (gogora dezagun, urte haietako lerdokerietako bat hauxe zela: LSDa kabiarrarekin konparatzea, eta horrek argiro erakusten du "Sistemaren Aurkako" drogaren sustatzaileen pentsaera burges halamoduzkoa), baina laster egin zion bidea heroinari. Eta marihuana, zeina droga gogor deritzenetara hurbiltzeko lotura izan den eta den, tenteltze unibertsalerako baliabide bat da, eta nahiz eta inkonformismoaren sinbolo bihurtu, konformismorik umekeriazkoena da; horretaz gaian, "errebeldiaren" ikur ere egin zen, baina azkenik kontserbadurismoaren beste era bat izatera pasa da.

Gogoratu beharrekoa da honako hau ere: modernismo instituzionalak, mende erdiz, "sexua, drogak eta roc-and-roll" lema zaharkilloa ezarri eta errepikatu ostean, drogak bakarrik geratzen dira, zeren rock-a ahanzturaren zuloetan galdu da, hain zuzen ere sinplekeria estilistikoa, edukien interesgabetasuna eta espiritu neokontserbadorea direla-eta, eta sexua likidatu aginean da, izan ere, desexualtze orokorraren zoritxarreko sasoi baten bizi gara, zeren, arlo horretan, ia ez da besterik sexu merkaturatua eta masturbazioa baizik, biak ere estatu-botereak sustatuak. Drogekin batean, jakina, alkoholak ere irau du, horixe baita aldi gaiztotu batetik datorkigun jaraunspena; izan ere, eraturako agintaritzak kualitatiboki sendotu zen aldi hartan, ordurarte izan zenarekiko "desberdin" eginda.

Batak eta bestetzuek suntsitu egin zuten hippie mugimendua, eta hori eginda gero, ezabatu edo oso indargetu dituzte eraturaz joan diren herri-mugimendu autonomo guztiak. Beraz, Estatuaren ametsa gauzatu dute: ez dadila izan beste bizitza kolektiborik, ezpada bere baitan gauzatzen dena, halako eran ezen klase herrikoiek bizimodu eraketarik gabekoa eta guztiz sakabanatua egin beharko duten, horrek ia guztiz ezabatzen du klaseon arriskugarritasuna. Horrez gain, munduan zehar, drogek milioika pertsona hil dituzte eta hiltzen jarraitzen dute, alkoholak egiten duen legez. Eteten ez den hilkintza horren arduradun dira alkohola zein drogak sustatu dituztenak, bereziki kontrakultura (gaur egun ia desagertua), ezker instituzionala eta horrek antikapitalismo estatolatrikoan dituen sateliteak, antikerikalismo burgesa eta intelektual progresisten parte handi bat, betiere frankismoa kontuan izanik, bera izan baitzen bide-urratzailea.

Iraganeko eta egungo zakartasuna eta neurritasun-eza aztertzeak, eta gero eta gehiago diren mozkontien gizarte ikaragarria zelana eta zergatik osotu den jakiteak ahalbidetuko dute irizpide batzuk, argudio batzuk eta estrategia bat finkatzea, eta hala arazoari aurre egin ahal izatea; hartarako, kontuan izanik, arlo honetan, gaur egun ez dela gure xedea gaitza guztiz kitatzea, nahiz eta guk horixe gura biziro; izan ere, instituzioetatik era askotan sustatzen da gaitza, hain justu ere kontzientzia askatasunik eta adierazpen askatasunik gabeko baldintza lazarri eta garratzetan. Hortaz, helburua hauxe da: gaitzaren aurka epe luzerako borroka burutzea. Zeren indarreango diktadura politikoko erregimenean arazoak ez du konponbiderik eta ezin du izan; beraz, beharrezkoa da iraultza askatzailea (zeina ezinbesteko baldintza izanik ere, ez da aski), zertarako-eta gizarte behar bezain librea eratzeko, eta hala gaitza neurri onargarrietara murriztu ahal izateko. Baina, kontu

egitekoa da ez dela emanzipazio erabateko eta guztizkorik, zeren eta gizakiak, bere kondizioa dela-eta, doilor jokatzen du eta huts egin ohi du.

Alkoholismoaz egin beharreko azken ohartarazpen bat: xalo direnek edo beharbada makiavelikoagoak direnek uste dutenaren aurka, arazoa nagusiki ez da osasunaren edo medikuntzaren arlokoa, ezpada afera politikoa da, eta bai norbanakoaren kalitatearen, elkarbizitzaren eta zibilizazioaren arloetakoa ere. Alkoholismoaren ondoriozko gaitzak, batez ere, espiritualak eta inmaterialak dira, eta ez horrenbeste fisikoak eta somatikoak. Gizaki egiten gaituzten balioak hondatzen ditu alkoholak: nor bere ekintzen arduradun izatea, egia, askatasuna, bertute pertsonalak, nor bere buruaren jabe izatea, arteztasun morala, lanean ahalegintzeko eta arriskuari aurre egiteko gaitasuna, aukeramenaz baliatzea eta nor bere buruaz ahazten jakitea. Izaita biologiko huts bihurtu nahi gaituztenei gogorarazi behar zaie ezen, halako bagara ere, beharrizan ispiritualen mendeko garela, zeintzuei erantzutea premiazkoa den, eta kontu egitekoa da ezen alkoholismoa ere halako beharrizan inmaterial-naturalak erreprimitzetik etorri ohi dela; izan ere, beharrizan horiek berez dagozkie gizakiei.